# EXFIBAR 2025

## LVI - SEILU ERAKUSKETA
## LVI EXPOSICIÓN FILATÉLICA




EIBARKO MUSIKA BANDA 1884/2025

BANDA DE MÚSICA DE EIBAR 1884/2025

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

ASOCIACION FILATELICA ARRATE
ARRATE FILATELIA ELKARTEA
+ EIBARKO + EIBAR

kutxabank

ASOCIACION FILATELICA ARRATE
ARRATE FILATELIA ELKARTEA
e-mail isidrorejo@gmail.com
Apartado, 33
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



MEDALLA DE FESOFI 2021

# BATZORDE ANTOLATZAILEA
# COMISIÓN ORGANIZADORA

**PRESIDENTEA / PRESIDENTE:** Isidro Rejo Lorenzo

**IDAZKARIA / SECRETARIO:** Juan Gómez Barranco

**DIRUZAINA / TESORERO:** Alberto Elizondo Retolaza

## 2025KO AZAROAREN 23TIK ABENDUAREN 29RA
## DEL 23 AL 29 DE NOVIEMBRE

## ORDUTEGIA /HORARIO:

**Astelehenetik ostiralera: 18:00 - 20:00 De lunes a viernes**

**Larunbata eta igandea: 11:30 - 13:30, 18:00-20:00 sábado y domingo**

D.L. / L.G.: SS-1559-2012







## Posta-marka

**Horario del matasellos**

**Día 23: 10,30 – 13,30**




*Murtzia 1981 – Fdez. Caballero maisua*

XIX. mendearen erdialdean, Adolf Saxi esker, besteak beste, haize-instrumentuak perfekzionatu egin ziren, eta horrek eragina izan zuen musika-banden bilakaeran. Banda militarrek, beren jarduerekin eta kontzertuekin, eta jai herrikoietan parte hartuz, sustraitu egin zuten jendearengan musika-talde propioak sortzeko beharra. Musika-bandek —talde amateur ugarirekin— tradizio luzea dute, eta herritarrengan errotutako ondare kulturala osatzen dute, kasu askotan, ehun urtetik gorako historiarekin. Historikoki, genero guztien hedapen musikalaren funtzioa bete dute musika-bandek. Hasieran, orkestra gutxi zegoenean, Tchaikovsky, Wagner, Lizst ... eta halakoen musika handia transmititu zuten, orkestrarako jatorrizko transkripzioen bidez. Halaber, funtzio pedagogikoa ere izan zuten, taldeetako asko musika-eskola izan baitziren kontserbatorioak sortu baino lehen.

Eibar ez zen desberdina izan, eta jada 1831n Compañía Filarmónica bat egon zen. Hari buruz dakigun gauza bakarra da musika tresnak erosteko eskaera bat egin ziotela udalari, 4.000 errealeko dirulaguntza eskatuz, hain zuzen. Orduz geroztik, eta 1879ra arte, gerrek ahalbidetzen zuten guztietan, musika-banda egon zen Eibarren. Haren zuzendari izan ziren José Antonio Oteiza, Pablo Echeverria eta José Mateo.

*A mediados del siglo XIX, gracias a Adolf Sax, entre otros, los instrumentos de viento se perfeccionan, influyendo así en la evolución de las bandas de música. Las bandas militares con sus actividades, conciertos y participación en fiestas populares hicieron arraigar en la gente la necesidad de crear agrupaciones musicales propias. Hay una gran tradición bandística, con un gran número de bandas municipales amateurs, constituyendo un patrimonio cultural de mucho arraigo en la ciudadanía, de más de cien años de historia en muchos casos. Las bandas de música históricamente han ejercido la función de difusión musical de todos los géneros. En sus inicios, cuando aún había pocas orquestas, estas pudieron transmitir a los ciudadanos la gran música de Tchaikovsky, Wagner, Liszt… a través de transcripciones de sus originales para orquesta.*

*También han desempeñado una gran función pedagógica, ya que muchas de las agrupaciones funcionaron además como escuelas de música antes de la creación de los conservatorios.*

*En Eibar no fue diferente y ya en 1831 hubo una Compañía Filarmónica de la que no tenemos más datos que una solicitud al Ayuntamiento de una subvención de 4.000 reales de vellón para la compra de instrumentos. Desde entonces y hasta*




*Begijnedijk, Belgika 1981 – Bandako musikaria bonbardinoa jotzen. / Begijnedijk, Bélgica 1981 - Músico de banda tocando el bombardino.*

Udalaren 1882ko abenduaren 27ko ohiko bilkuran, hala dio aktak: "Se leyó un memorial suscrito por Don Lucio Leaniz Barrutia y otros vecinos de esta Villa solicitando del Ayuntamiento acuerde el establecimiento por su cuenta de una banda de Música instrumental que a la par que sea para los jóvenes de ilustración y recreo, sirva al vecindario de agradable entretenimiento, que acordó tomar en consideración y se nombró una Comisión para que, estudiando el asunto emita un dictamen formando al efecto un presupuesto aproximado del coste que su instalación ha de originar".

## Ildefonso Irusta Echeverria: 1884-1924

Handik bi urtera, Ildefonso Irustak kezka haren lekukoa hartu, eta erabaki zuen udalera jotzea, Musika Akademia eta banda martzial bat sortzeko proposamen batekin (aurrekontu eta guzti); proposamen hura 1884ko martxoaren 20ko ohiko bilkuran aztertu zen.

Akademia eta banda ondo funtzionatzen hasten dira eta Salon-Teatroko jabeak idatzi bat bidali zion udalari, hauxe erregutuz: "Retire el proyecto que tiene concebido de hacer tocar a la música en las Plazas públicas durante las noches de las fiestas de San Juan hasta las once de la noche, en atención a que quedan ellos perjudicados en sus intereses".

*1879, siempre que las guerras lo permitieron, hubo música en Eibar pero poco duradera en el tiempo. Fueron directores de la misma José Antonio Oteiza, Pablo Echeverria y José Mateo.*

*En sesión ordinaria del Ayuntamiento de 27 diciembre de 1882 tal como dice el acta: "Se leyó un memorial suscrito por Don Lucio Leaniz Barrutia y otros vecinos de esta Villa solicitando del Ayuntamiento acuerde el establecimiento por su cuenta de una banda de Música instrumental que a la par que sea para los jóvenes de ilustración y recreo, sirva al vecindario de agradable entretenimiento, que acordó tomar en consideración y se nombró una Comisión para que, estudiando el asunto emita un dictamen formando al efecto un presupuesto aproximado del coste que su instalación ha de originar".*

## *Ildefonso Irusta Echeverria: 1884-1924*

*Ayuntamiento con una propuesta para la creación de una Academia de Música y una banda marcial con presupuesto incluido, propuesta que sería tratada en sesión ordinaria de 20 de marzo de 1884.*

*La academia y la banda empieza a funcionar bien y el propietario del Salón-Teatro envía un escrito al Ayuntamiento suplicando "retire el pro-*




*La Flotte, Frantzia 1984- Musika Jaialdia eta Desfilea La Flotte herrian. Musika-tresna tronpa bat da. / La Flotte, Francia 1984 - Festival de Música y Desfile en la localidad de La Flotte. Instrumento, es una trompa.*

Hurrengo urtean, tresna berriak erosi eta araudi bat egin zen: Reglamento para el régimen de la Academia de enseñanza de música vocal e instrumental de la Villa de Eibar, zeinak 10 artikulu eta 2 xedapen iragankor zituen. Bertan ezartzen zen, besteak beste, irakaskuntza doakoa izango zela, haren gobernua eta zalantzen ebazpena Musika Batzordeari zegokiola eta zuzendaria udalak izendatuko zuela; zuzendariaren betebeharrak ere ezartzen zituen. Ikasleek izena emateko gutxieneko adina 14 urtekoa zen.

Udala ohartu zen bandako musikariek oso denbora gutxi egiten zutela bertan (justu araudiak exijitzen zituen lau urteak), eta horrek ezegonkortasun handia eragiten ziola elkarteari; hala, 1894an erabaki zuen ordaindutako zortzi plaza sortzea, urtean 80 pezeta ordainduz plaza bakoitzeko. Horrela, udal-banda antzeko bat sortu zen.

1897an, negoziatu ondoren, ordaindutako plazak hamahiru izatera pasa ziren eta araudiko puntu batzuk aldatu ziren. Hurrengo urtean, Parisko Coueson & Cía etxeari 30 tresna erostea erabaki zen. 1902an, araudi berria egin eta onartu zen 30 musikari izatea, eta haietatik 20 ordaindutakoak. Orobat, emanaldi-egutegi bat ere ezarri zen.

Eibarren dena zegoen egiteko. Urtebete zen udaletxe berria eraiki zela eta musika-kiosko berria ere egiten ari ziren. Ez zegoen dirurik eta lana ere urria zen garai hartan; hortaz, Marcial bandak kontzertu ugaritan jotzen zuen: Sociedad de Socorros Mutuos delakoaren alde, Galería de Convalecientes eraikitzen, Mutrikuko Iturrino ontziko naufragoen familien alde, eta abar.

*yecto que tiene concebido de hacer tocar a la música en las Plazas públicas durante las noches de las fiestas de San Juan hasta las once de la noche, en atención a que quedan ellos perjudicados en sus intereses".*

*Al año siguiente se comprarían nuevos instrumentos y se confecciona un Reglamento para el régimen de la Academia de enseñanza de música vocal e instrumental de la Villa de Eibar el cual constaba de 10 artículos y 2 disposiciones transitorias y en el que se establece entre otras cosas que la enseñanza será gratuita y su gobierno y la resolución de dudas corresponderá a la Comisión de Música, que el director de la misma será nombrado por el Ayuntamiento y establece también obligaciones del mismo. La edad mínima de los alumnos para su matriculación sería de 14 años.*

*Habiendo observado el Ayuntamiento la escasa permanencia de los músicos en la banda (apenas los cuatro años que exigía el reglamento) provocando esto una gran inestabilidad a la agrupación, decide en 1894 crear ocho plazas gratificadas con 80 pesetas anuales por cada plaza, creándose así una especie de banda municipal al efecto.*

*En 1897, tras previa negociación, las plazas gratificadas llegarían a trece y se reformarían algunos puntos del reglamento y al año siguiente se aprobaría una compra de 30 instrumentos a la casa Coueson & Cía. de París. En abril 1902 se confecciona un nuevo reglamento en el que se acuerda un número de 30 músicos de los cuales 20 serían gratificados y un calendario de actuaciones.*




*Lyon 1987 – Musikaren Eskualdeko 2. Aretoa / 2º Salón Regional de la Música.*

1902an Donostian, Gran Concurso Musical Internacional de Orfeones, Bandas, Charangas y Trompas de caza izeneko lehiaketara aurkeztu ziren, eta diru-bilketa bat egin behar izan zuten bidaia ordaintzeko. Zilarrezko domina lortu zuten lehen bistako irakurketan, eta Ohorezko Saria (500 pezeta) eta diploma, beren kategorian (B Taldea). Udalak lehen uniformeak egin zituen, okasioak eskatzen zuen bezala, eta estandartea ere ordaindu zuen.

1904an, udalarekin zituzten desadostasunengatik, dimititu egin zuten musikari guztiek, baina ez zuzendariak, zeinak beste banda bat sortu barik, hitzarmen bat eskaini zien musikariei. Une hartatik eta 1915era arte, Marcial musika-banda banda pribatu bat izango zen, "La Marcial" izenekoa.

1905ean, musika-kiosko berria inauguratu zen, eta La Marcialek sariak jasotzen jarraitu zuen; hala, urte bereko urrian, Bergarako Lore Jokoetan lehen saria lortu zuen Lehen Sekzioan. 1906ko uztailean, Donostiako Lore Jokoetan lehen saria jaso zuen. Urte bereko irailean, Bilboko Eskualde mailako Lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen A taldean, eta 1907ko uztailean Donostiako Nazioarteko Banden Lehiaketan Ohorezko Lehen saria A taldean eta baita epaimahaiaren aipamen berezia ere.

1908an, Eibarko Udala izan zen Lore Jokoak antolatzeko arduraduna, eta batzorde berezia eratu zen horretarako. Okasioak eskatzen zuen bezala, urte bereko martxoan: "Se acordó que sin más dilación y próximas las Fiestas Euskaras, se proceda a encargar a Barcelona, o donde se crea

*En Eibar estaba casi todo por hacer, hace un año de la construcción del nuevo ayuntamiento y también se está haciendo el nuevo kiosko de la música y el dinero y el trabajo escasean por temporadas por lo que la Banda Marcial cooperaba en multitud de conciertos benéficos a beneficio de la Sociedad de Socorros Mutuos, construcción de la Galería de Convalecientes, en favor de familias de los náufragos de la lancha Iturrino de Motrico y un largo etc.*

*En 1902 se presenta al Gran Concurso Musical Internacional de Orfeones, Bandas, Charangas y Trompas de caza de San Sebastián, teniendo que hacer una colecta popular para poder costear el viaje. Consiguen una medalla de plata en lectura a primera vista y Premio de Honor, de 500 pesetas y diploma, dentro de su categoría (Grupo B). El Ayuntamiento confeccionaría sus primeros uniformes como lo requería la ocasión y abona también de los fondos municipales el importe del estandarte.*

*En 1904, por desavenencias con el Consistorio, dimiten todos los músicos pero no el director, que será destituido de su cargo para, de momento, no crear otra banda sino ofrecer a los músicos dimisionarios un convenio. Desde este momento y hasta el año 1915 la banda de música Marcial sería una banda privada, "La Marcial".*

*En 1905 se inaugura al fin el nuevo kiosco de la música, y la Marcial sigue cosechando éxitos pues en octubre de este año, en el concurso de bandas celebrado en las Fiestas Euskaras de Vergara, obtendría el primer premio en la Sección*



1916-Eibarko Banda




*Iruñea 1985 – Seiluak eta musika Europan zehar / Pamplona 1985 - Sellos y música por Europa.*

conveniente, la confección de la bandera de la villa".

1911n, bandak musika-tresna berriak erostea erabaki zuen, eta haiek ordaintzeko kontzertu bat antolatu zuten, Astelena Frontoian egin zena maiatzaren 20an, non Verdi, Mancinelli eta Beetohovenen obrak interpretatu ziren.

1912an, José Franco Ribate Bermeoko Bandaren zuzendaria etorri zen Eibarrera, "a oír a la Banda Marcial que dirige el inteligente músico Ildefonso Irusta", La Voz egunkariaren Tomás Echaluce kronistak zioenez.

1913ko abuztuan, Mendeurrenaren Jaiak ospatu ziren Donostian, eta Eibarko Udala eta La Marcial Banda gonbidatu zituzten.

Urte horretan bertan, Bejamín Villabella eta beste eibartar batzuek zera proposatu zioten udalari: "Se estudie el modo de patrocinar a la Banda municipalizándola si posible fuera".

Bandaren ezegonkortasuna kontuan hartuta —armagintzaren krisiak musikari asko behartu zituen lana herritik kanpora bilatzera—, 1915ean, udalak erabaki zuen udaleko banda bihurtzea egonkortasuna bermatzeko, eta urte hartako ekainean, araudi berri bat egin zuen.

1916an, berriz ere Donostiako Udalak Eibarko Udala eta Udal Banda gonbidatu zituen hilaren 24an egin behar zen Musika Alardera, eta 1918an berriz ere errepikatu zen gonbidapena.

1917an, eta Teatro Crucetak antolatutako eus-

*Primera. En el mes de julio de 1906 participaron en las Fiestas Euskaras de San Sebastian obteniendo el primer premio. En septiembre del mismo año en el Concurso Regional de Bandas de Bilbao obtendría el segundo premio en el grupo A y en julio de 1907 en el Concurso Internacional de Bandas de San Sebastian obtendría el Premio de Honor en el grupo A y la felicitación especial del jurado.*

*En 1908 sería el Ayuntamiento de Eibar el encargado de organizar las Fiestas Euskaras para lo que se creó una comisión especial y, como la ocasión lo requería, en marzo de ese mismo año: "Se acordó que sin más dilación y próximas las Fiestas Euskaras, se proceda a encargar a Barcelona, o donde se crea conveniente, la confección de la bandera de la villa".*

*En 1911 la banda decide comprar nuevos instrumentos y para ayudar a pagarlos organizan un concierto que se celebró el 20 de mayo en el Frontón Astelena en el que se interpretaron obras de Verdi, Mancinelli y Beethoven.*

*En 1912 vino a Eibar el músico, y por entonces director de la Banda de Bermeo, José Franco Ribate con el fin de, según dice el cronista de La Voz Tomás Echaluce, "oír a la Banda Marcial que dirige el inteligente músico Ildefonso Irusta".*

*En agosto de1913 se celebran en San Sebastian las fiestas del Centenario, fiestas a las que sería invitado el Ayuntamiento de Eibar junto con la banda La Marcial.*




*Forbach, Frantzia 1987- Nazioarteko Musika Jaialdia Forbach herrian. Tronboi irristailduna, tronpeta eta bonbardinoa. / Forbach, Francia 1987 - Festival Internacional de Música en la localidad de Forbach. Trombón de varas, trompeta y bombardino*

kal musikari buruzko bi hitzaldiren karietara, Aita Donostiak (José Gonzalo Zulaika Arregi) egin zigun bisita. Lehen hitzaldian bandak Aita Donostiaren sei preludio jo zituen.

Urte horietan guztietan, Ildefontso Irustak ere dantzatzeko pieza batzuk konposatu zituen, ez Agustín Zuluagak geroago konposatuko zituen lanak bezain ezagunak, baina bai aipamena merezi dutenak. Haietatik hauexek dira ezagunenak: El día de mi santo (pasodoblea), Flor de Mayo"(5. zk.ko jota), Todo fuego (3. zk.ko jota), 4. zk.ko jota, La vulgaridad (polka) eta Mi sueño (jota). Era berean, Echalucek kontatzen zuen bezala, gutxienez bi habanera konposatu zituen, 1925ean estreinatu zirenak.

1923ko martxoan, Sustapen Batzordeak, zeinaren mende zegoen banda, hura berrantolatzeko proiektu bat egin zuen. Araudi berri bat egin zen, eta handik urtebetera, 1924ko otsailean, haren inguruko erantzuna berehala eman behar zutenez eztabaidarako aukerarik izan gabe, musikari guztiek dimititu zuten.

Dagoeneko Irustak 64 urte zituen, eta, uztailean, osasun-arazoak zirela bide, dimititu egin zuen. Jacinto Martinez zuzendariordeak hartu zuen aldi baterako gidaritza, 1924ra arte.

## Agustín Zuluaga Aldecoa: 1924-1933

Durangon jaio zen 1898. urtean, eta haren aita bigarren aldiz ezkondu zenean, familia guztia etorri zen Eibarrera. 1914an, La Marcial musika-ban-

*Este mismo año el Benjamín Villabella y algunos vecinos más proponen al Ayuntamiento "se estudie el modo de patrocinar a la Banda municipalizándola si posible fuera".*

*Dada la inestabilidad de la banda puesto que la crisis armera obliga a muchos músicos a buscar trabajo en otras localidades, el Ayuntamiento decide, en abril de 1915, municipalizar la misma para así ofrecer cierta estabilidad, y para junio de ese mismo año hizo un nuevo reglamento.*

*En septiembre de 1916 nuevamente el Ayuntamiento de San Sebastian invita al de Eibar y a su banda al Alarde Musical a celebrar el día 24, repitiéndose la invitación en 1918.*

*En 1917, y con motivo de dos conferencias de música vasca organizadas por el Teatro Cruceta, nos visita el Padre Donostia (José Gonzalo Zulaika Arregi). En la primera de ellas actuaría la banda ejecutando seis Preludios del mencionado Padre Donostia.*

*En todos estos años Ildefonso Irusta también hizo sus pinitos componiendo algunos bailables no tan conocidos como los que más tarde compondría Agustín Zuluaga pero igualmente dignos de mención. De ellos han sobrevivido hasta hoy: El día de mi santo (Pasodoble), Flor de Mayo (Jota n.º 5), Todo fuego (Jota n.º 3), Jota n.º 4, La vulgaridad (Polka) y Mi sueño (Jota). También compuso, como nos cuenta Echaluce, al menos dos habaneras que serían estrenadas en 1925.*




*Szczytno, Polonia 1984- Tronpeta, musika-banda bateko instrumentua / Szczytno, Polonia 1984 - Trompeta, instrumento de una banda de música.*



*1896-1996. 1. Erakusketa Filateliko Musikala. Zangozako Musika Bandaren Urteurrena. "Instrumento saxofón"1896-1996. 1ª Muestra Filatélica Musical. Centenario Banda musical de Sangüesa. "Saxofon instrumentoa*

dan sartu zen klarinete-jole gisa, eta, aldi berean, piano-eskolak hartu zituen. 1920an, Bretón orkestran hasi zen zuzendari pianista bezala; orkestra hark La Amistad kasinoak eskaintzen zituen dantzaldietan jotzen zuen.

1919an, bere lehen obra konposatu zuen: Marichu fox-trota. 1922an, Garellano kuartelean zegoela aprobetxatuz —hantxe egin zuen soldaduska—, Bilboko Kontserbatorioan osatu zituen musika-ikasketak. Han ikasi zuen harmonia eta instrumentazioa José Franco Ribaterekin.

1924an, Eibarko Udal Musika Bandako zuzendari izendatu zuten, eta, baita Udal Musika Akademiako zuzendari ere, non bandako kide izango zirenek ikasten zuten; halaber, Rialto orkestra sortu zuen, zeinak dantzaldiak girotzen zituen izen bereko aretoan.

1928ra aldera, aldaketa bat egon zen musikakioskoko emanaldietan musikariek zuten jarrerari dagokionez. Ordura arte, musikariek zutik jotzen zuten, zirkulu bat osatuz kioskoaren inguruan, eta zuzendaria erdian kokatzen zen. Handik aurrera, musikariak aulkietan eta bankuetan jarrita jotzen hasi ziren eta zuzendaria zutik haien aurrean. Aldaketa horrek eztabaida handia sortu zuen; izan ere, batzuen ustez, "Madrildik inportatutako jotzeko moda horrek" zaildu egiten zuen musikariek airea behar bezala botatzea, uste baitzuten zutik egotea zela haize-instrumentuak jotzen zituztenen jarrerarik naturalena eta mesedegarriena.

Garai hartan, bandako jarraitzaileek udalari eskatu zioten euria edo eguraldi txarra egiten zuen

*En marzo de 1923 la Comisión de Fomento, de la que depende la banda, elabora un proyecto de reorganización de la misma del que se confeccionará un nuevo reglamento y un año más tarde, en febrero de 1924 dado que se les exige una respuesta casi inmediata respecto al mismo y sin posibilidad de discusión, dimiten todos los músicos.*

*Irusta ya tiene 64 años y en el mes de julio por motivos de salud dimite de su cargo y es su subdirector, desde al menos 1902, Jacinto Martínez, quien se encargará de forma interina de la dirección hasta 1924.*

## *Agustín Zuluaga Aldecoa: 1924-1933*

*Nace en Durango el año 1898 y al casarse su padre por segunda vez, toda la familia se traslada a Eibar. En 1914 se incorpora a la banda de música La Marcial como clarinete a la vez que recibe clases de piano y en 1920 entra como director-pianista en la orquesta Bretón, que tocaba en los bailes que ofrecía el Casino la Amistad.*

*En 1919 compone la primera obra musical: el fox-trot Marichu. En 1922, aprovechando su estancia en el cuartel de Garellano en cuya banda hizo el servicio militar, completaría sus estudios musicales en el Conservatorio de Bilbao donde estudió armonía e instrumentación con José Franco Ribate.*

*En 1924 es nombrado director de la Banda de Música Municipal de Eibar, y como tal también le*




*Elgoibar 1995 – Bandaren 110. urteurrena / 110 años de la Banda*

egunetan bandako audizio-kontzertuak Untzaga plazako kioskotik Salón Teatrora eramateko.

Hainbeste konpromisoren artean, Zuluaga gazteak bazuen astirik bere konposizioetarako, bereziki dantzatzeko piezak egiteko; haietako asko gaurdaino ailegatu dira: Muy Chulón (1926ko schotisa), Fullmen (1926ko fox-trota), La Torrerica (1927ko jota), Alma Gaucha (1928ko tango-milonga), Con gracia y salero (1929ko pasodoblea), Cielito (1929ko habanera, haren alaba Oliviaren omenez egindakoa), zeina gaur egungo bandaren izena den, Mortus est (1930ko hileta-martxa), Pipiola (1930ko tango-milonga), Sanduguero (1930ko shotisa), AnaMari (zortzikoa), Al Eibar Club edo Los alegres montañeros (pasodoblea) edo Rialto (Rialto Orkestinaren omenezko pasodoblea). 1931n, Pamperito pieza idatzi zuen, eta hura izango zen bere azken obra.

Agustin Zuluaga eszedentzian zegoen 1932tik, gaixotasun luzeagatik, eta haren ordez Jacinto Martínez zuzendariordeak hartu zuen zuzendaritza aldi batez.

1933an, eta gaixotasuna zela-eta ezin zenez lanera itzuli, baja eman zuen karguan. Hurrengo urtean (1934ko maiatzaren 1ean) hil zen Agustín Zuluaga Aldekoa, 35 urte zituela.

## Jacinto Martínez Ordoz-goiti 1933-1936

1934ko apirilean, Jacinto Martínez izendatu zuten zuzendari titular. Araudi berri bat sortu zen, eta uniforme berriak egitea onartu. Rafael Cañón

*corresponderá la dirección de la Academia Municipal de Música, entidad en la que se formaban los futuros miembros de la banda y crea la orquesta Rialto, que amenizaba los bailes en el salón de baile del mismo nombre.*

*Hacia 1928 hay un cambio en la disposición de los músicos en el kiosko de la música a la hora de ofrecer las actuaciones. Hasta entonces lo habitual era tocar de pie y formando circulo alrededor del kiosko y el director situándose en el centro. A partir de esa fecha los músicos tocan sentados en sillas y banquetas y el director de pie frente a ellos. Dicho cambio produjo una importante controversia, ya que algunos consideraban que "esa moda de tocar sentados importada de Madrid", dificultaba la emisión del aire en los músicos, considerando que el tocar de pie era la postura más natural y favorable para quienes tocaban instrumentos de viento.*

*Por esas fechas, hay petición por parte de los seguidores de la banda al Ayuntamiento para que los días de lluvia o de mal tiempo, los conciertos de audición de la banda se trasladen del kiosko de la plaza de Unzaga al Salón Teatro.*

*Con todo este trajín de innumerables compromisos aún tenía tiempo el joven Zuluaga para sus composiciones, principalmente de bailables, habiendo llegado hasta nuestros días: Muy Chulón (Schotis de 1926), Fullmen (Fox-trot de 1926), La Torrerica (Jota de 1927), Alma Gaucha (Tango-Milonga de 1928), Con gracia y salero (Pasodoble*



*1955-Santa Zezilia / Santa Cecilia*

zuzendariorde izendatu zuten, zeina bandako kide izateaz gain, Musika Eskolako irakasle ere bazen.

Berritasun gisa, bandari zegokionez, 1935ean, forma oktogonala zuen musika-kiosko berria inauguratu zen, Untzaga plazako hego-partearen birmoldaketa-proiektuaren barruan. Kioskoaz gain, lokal berriak eraiki ziren, Eibarko Orfeoiaren bulego eta entsegu-areto gisa erabili zirenak.

Kiosko berria inauguratu bezain laster, zaharra desmuntatu zen Beasainera eramateko (han dago gaur egun ere).

Gerra Zibila (1936-1939) zela eta, bandaren etapa berri hori eten egin zen, eta udalak 1937ko irailean desegin zuen ofizialki.

1938an, musikal-talde berri bat sortu zen Banda de Música de Falange Española Tradicionalista y de las JONS de Eibar izenarekin, zeinak kontzertua eman zuen 18 de Julio izena zuen Untzaga plazan, 1938ko ekainaren 6an, Lozano maisuaren zuzendaritzapean. Ez dakigu zenbat denboran egon zen zuzendari hura bandaren kargu.

Eibarren bandarik ez zegoenez, 1941eko San Juan jaietarako, Soraluzeko musika-banda kontratatu zen.

Urte horretan, depurazio-espedientea ireki zitzaion Jacinto Martínez Ordozgoitiri eta zuzendari-kargurako desgaituta geratu zen.

*de 1929), Cielito (Habanera dedicada a su hija Olivia de 1929) composición que además da nombre a la actual asociación de la Banda, Mortus est (Marcha fúnebre de 1930), Pipiola (Tango-Milonga de 1930), Sanduguero (Schotis de 1930), AnaMari (Zortziko), Al Eibar Club o Los alegres montañeros (Pasodoble) y Rialto (pasodoble que dedicaría a la Orquestina Rialto). En 1931 escribe el pericón Pamperito, que sería su última composición.*

*Agustín Zuluaga en excedencia desde 1932 por larga enfermedad, será sustituido por el subdirector Jacinto Martínez, quien será nombrado director interino.*

*En 1933, y dado que su enfermedad no permite su reincorporación, será dado de baja de su cargo. Al año siguiente, el 1º de mayo de 1934, moriría Agustín Zuluaga Aldecoa a la edad de 35 años.*

## *Jacinto Martínez Ordozgoiti 1933-1936*

*En abril de 1934, será nombrado director titular Jacinto Martínez. Se crea un nuevo reglamento y se aprueba la confección de nuevos uniformes y será designado subdirector Rafael Cañón que, aparte de ser miembro de la banda ya ejercía como maestro en la Escuela de Música.*

*Como gran novedad, en cuanto a la banda se refiere, el año 1935 se inaugura un nuevo kiosko de música de forma octogonal que se construyó, dentro del proyecto de remodelación de la parte sur de la plaza de Unzaga. Además del kiosko se*



*1967- Kalejira eta kontzertua / 1967- Pasacalles y concierto.*



1997-Eibarko Banda




Elgoibar 2010 – Musika Bandaren 125. urteurrena. Seiluan José Zubiaurre-Balle zuzendaria (1956tik 1983ra) / 125 años de la Banda de Música. en el sello el Director José Zubiaurre-Balle, de1956 hasta 1983

Ángel Gárate Arriaga, Beltxi hasi zen banda antolatzen. Kezka eta ezinegona zegoen eibartarren artean, ez baitzuten ulertzen musikariak, instrumentuak eta aurrekontua egonda nola ez zen akordiorik lortzen udalaren eta musikarien artean; ez ziren ezagutzen desadostasunaren arrazoiak. 1942ko maiatzean, Ángel Garatek, Banda de Música de F.E.T y de las J.O.N.S izeneko bandaren zuzendari zela, udalari eskatu zion udal-banda antolatzeko, dantza-emanaldiak eta audizio-kontzertuak eskaintzeko, bai eta Akademia bat sortzeko ere.

## Jacinto Zuluaga Vázquez: 1942-1988

1942ko ekainaren 29an, udalak Jacinto Zuluaga Vázquez izendatu zuen bandaren zuzendari, eta ordutik aurrera Banda Local de Eibar izena hartu zuen.

Kargura iritsi zenean, bandak 13 kide bakarrik zituen. Poliki-poliki Erregimenak errepresaliatutako musikariak itzuli ziren herrira, eta lortu zen bandak ia hogeita hamar bat kide izatea.

Egoerarik zailena 1949an gertatutako zatiketa izan zen. Zuzendariarekin desadostasun handiak zituztenez, ia musikarien erdiek, Juan Ugalderen zuzendaritzapean, banda utzi eta "La Lira" izeneko beste bat eratzea erabaki zuten, 1959an desegin zen arte jardun zuena. Taldea oso ahulduta geratu zen, eta dozena bat musikarirekin jarraitu behar izan zuen. 50eko hamarkadan Eibarrera jende asko zetorrenez lanera, banda berriz ere osatu

*construyen diferentes locales que se utilizarían como oficinas y sala de ensayos del Orfeón Eibarrés.*

*Nada más inaugurar el nuevo kiosko, se procede a desmontar el viejo para trasladarlo a Beasain, donde todavía hoy día sigue en pie.*

*Esta nueva etapa de la banda se vería truncada con motivo de la Guerra Civil (1936-1939), quedando oficialmente disuelta por el Ayuntamiento en septiembre de 1937.*

*En 1938 se crea una nueva agrupación musical con el nombre de Banda de Música de Falange Española Tradicionalista y de las JONS de Eibar que ofrece un concierto en la entonces denominada plaza del 18 de Julio el día 6 de junio de 1938 bajo la dirección del maestro Lozano. No sabemos cuánto tiempo estuvo dicho director al cargo de la banda.*

*Debido a que en Eibar no hay banda, para las fiestas de San Juan del año 1941 se contrata a la banda de música de Placencia.*

*Ese mismo año se le abre expediente de depuración a Jacinto Martínez Ordozgoiti y queda inhabilitado para el cargo de director.*

*Ángel Gárate Arriaga Beltxi comienza a organizar la banda y empieza a haber preocupación y cierto desasosiego entre los vecinos porque, habiendo músicos, instrumentos y presupuesto, no hay acuerdo entre el Ayuntamiento y los músi-*



Jazinto Olabe 12

ahal izan zen. Nafarroako, Aragoiko, Galiziako, Gaztelako, Errioxako edo Extremadurako jendeari esker (batzuek musika-ezagutza handia zuten) eta zuzendariak berak trebatu zituen beste batzuei esker, Eibarrek probintzia osoko talde onenetako bat izatea lortu zuen hamarkada horren erdialdetik aurrera.

Urte horietan, Santa Zeziliako kontzertua Coliseo aretoan edo Amaya antzokian ematen hasi ziren. Bandaren jarraitzaile askok udalari eskatu zioten plazako kioskoan ematen ziren kontzertuak areto horietako batean egin zitezela kontzertuak leku estali batean entzun ahal izateko, eguraldiaren gorabeherak, kotxeen eta pertsonen zarata eta kioskoaren akustika txarra saihestuz. 1968an, kontzertuak udaletxeko arkupeetan egiten hasi ziren. 1976an, Kultura Aretoa inauguratu zen, udaletxe barruko patioaren birgaitze-lanen ondorioz, eta, handik aurrera, bai patioan bai arkupeetan interpretatutako zituen bere audizio-kontzertuak bandak, harik eta 90ko urteetan udaletxeko eraberritze-obrak hasi arte.

Beste arazo bati ere aurre egin behar izan zioten 70eko hamarkadan: Musika Akademian ikaslerik ez izatea, eta, ondorioz, musikari gutxi sartzea bandan.

Jacinto Zuluagak zuzendariordea izan zen Lucio Bengoaren laguntza paregabea izan zuen banda antolatzeko. Gizon irekia, azkarra, broma-

*cos, desconociéndose los motivos del desencuentro. El mes de mayo de 1942 Ángel Gárate, como director de la banda de música de la F.E.T y de las J.O.N.S., solicita al Ayuntamiento la organización de la citada banda para ofrecer conciertos de bailables y audición así como la formación de una Academia de educandos.*

## *Jacinto Zuluaga Vázquez: 1942-1988*

